

# **11.LAN MERKATUAREN ERRONKA BERRIAK.**

## **11.1.Langabezia: egiturazko arazoa.**

Estatuaren parte hartzea politika ekonomikoan onartu zenetik, bere helburu nagusia desoreka makroekonomikoen kontrola izan da. Hau da, inflazioa tasa txikia izatea, txanponaren egonkortasuna, ordain balantzaren oreka eta langabeziaren murrizketa, erabateko enplegua lortu arte.

Gizarte industrial garatuetan helburu horien artean zailena lortzeko, gaur egun, erabateko enplegua da. Beste guztiak, nola edo hala, eskuratzen dira edo, behintzat, baliabideak daude betearazteko. Enpleguarekin, aldiz, hazkunde ekonomikoa egon arren, ez da lortzen langabezia desagerraraztea. Izan ere, aldaketa eta berrikuntza teknologikoak lanpostu ugari suntsitzen dituen bitartean, horien ordez sortzen direnak, oso mugatuak izaten dira.

Langabezia handiaren ondorioak nabarmenak dira: desberdintasun sozialak gero eta handiagoak, etsipena, bazterketa soziala, emigrazioa, gatazka sozialak. Neurriak hartzen dira, baina alferrikakoak direla ematen du.

Bi jarrera nagusi daude arazoaren aurrean:

- 1)Ortodoxo- errealistak: Arazoa konpon daitekeela uste du, hainbat neurri tradizionalak erabiliz.
- 2)Erantzun berriak: Uste dute langabeziaren arazoa, gaurko egitura ekonomikoarekin, konponezina dela, beraz, birpentsatu egin behar da enpleguaren esanahia eta, bereziki, jendearen errenta iturriekin duen lotura. Formula berriak bilatzen dira gure bizitza soziala antolatu ahal izateko.

## **11.2. Lanaren politika ortodoxoak.**

Ekonomiaren ikuspuntu tradizional batetik abiatzen dira, alegia, arazoaren iturburuak eskaintza eta eskariaren artean dauden desorekak izaten dira. Beraz, desoreka horiek konpondu beharko dira eta horretara datoz enplegu politikak edo industrialak. Neurri politiko hauek bi ataletan banatzen dira:

a)Pasiboak: Bere lehen helburua ez da enplegua bultzatzea baizik eta, langabeziaren ondorioak leuntzea, hau da, eramangarriagoak egitea. Neurririk ezagunena langabetuei ematen zaizkien diru laguntzak edo sariak dira. Beste kasu batzuetan langabetuen kopuru ofiziala murrizteko neurriak hartzen dira, hala nola: aurre erretiroak bultzatu behar bada ekonomikoak daudenean; lanean hasteko adina atzeratu, biztanleria aktiboaren definizioak aldatu, nolabaiteko trikimailu estatistiko bat eginez.

b)Aktiboak: Euren asmoa lanpostuak mantentzea eta berriak sortzea da. Horretarako krisian dauden sektore industrialak birmoldatu egiten dira eta industria berriak suspertzen dira. Prestakuntza aldetik ere lan egiten da, lan indarra behar berrietara egokituz, etengabeko lanbide heziketaren bidez. Honako hauek izaten dira neurriak:

- Diru laguntzak enpresei lanpostu berriak sor ditzaten, edota murrizketa fiskalak.
- Kontratazio mota batzuk lehenetsi: gazteak, epe luzeko langabetuak, emakumeak, e.a.
- Lanbide heziketa iraunkorra. Birziklapen profesionala zaharkituak gelditu diren kualifikazioetan.
- Tokiko garapena bultzatu krisi sakona bizi izaten duten eskualdeetan.

Honelako kasuetan, hala ere, ez dago argi noraino izaten diren eraginkorrak honelako neurriak. Zenbait kasutan, badirudi helburu nagusia zerbait egiten delakoaren irudia ematea dela, besterik ez. Hau da, itxurakeri hutsa ez onartzearen ez dagoela benetako irtenbiderik. Langabetu batzuk bizitza osoa igarotzen dute ikastaroetan diru laguntzak ez galtzeko, baina ez dute inoiz benetako lanpostu bat eskuratzen. Izan ere, politika hauen azken helburua langabetuen kontrol sozialaren mekanismo bat bihurtzen da.

Gaur egun ikusten ari gara nola nahasten diren politika sozialak eta lanaren politikak erakunde berean, Lanbiden gertatzen dena. Horrela langabetuak iruzurgile izatearen susmopean bizi dira.

### **11.3.Eztabaida berriak, proposamen berriak.**

Politika ortodoxo errealistek ez dute zalantzan jartzen gau egun dagoen antolaketa ekonomikoa. Erabateko krisialdian murgilduta egon arren, ez dute planteatzen gizartearen eta ekonomiaren berrantolaketa sakon bat. Are gehiago, bere irtenbidea krisiaren aurreko egoerara bueltatzea da. Aldatzen den elementu bakarra langileentzako proposatzen diren lan baldintza kaxkarragoak: soldata txikiagoak, lan jarduera luzeagoak, ezegonkortasun handiagoa, e.a.

Beste egile batzuk, aldiz, lan esparruaren eta lan jardueraren inguruan hausnarketa sakon bat egin behar dela aldarrikatzen dute. Gizarte industrial aurreratuek daramaten dinamikarekin ezinezkoa izango da berriro erabateko enplegura bueltatzea, hau da, ez da egongo egoera bat non posible den ziurtatzea denbora osoko lanpostu egonkor bat biztanleria aktiboaren %95ri euren bizitza aktibo osoan zehar. Izan ere, horixe litzateke erabateko enpleguaren definizio zehatz bat.

Ezintasun horren aurrean hiritar guztiei bizimodu duin bat ziurtatzeko desegin behar da lanpostu eta diru sarreren artean dagoen lotura zuzena; hots, beste modu batzuk bilatu beharko dira lana eta errenta banatzeko. Proposamen berri horiek hiru ardatzen inguruan antolatzen dira:

- 1)Lan denboraren banaketa berriak
- 2)Oinarrizko errenta unibertsala. Lana eta errentaren arteko loturaren apurketa.
- 3)Zerbitzu eta lanpostu berriak: lanaren desmerkantilizazioa.

### 1) Lan denboraren banaketa

Soldaten igoerarekin batera lanorduen murrizketa izan da ekintza sindikalaren ardatza. Helburua ez zen horrenbeste lanpostu berriak sortzea, baizik eta bizitza baldintzen hobekuntza nabarmen bat. Aisialdirik gabeko gizarte batetik, aisia eta lana era orekatuan banatzen duen gizarte batera pasatzen da. Hasiera batean igande eta jaiegunak errespetatzea eskatuko da, gero 5 egunetako astea eta 8 ordutako lan eguna. Hori lortu zenetik hona, lan egutegiaren murrizketak moteldu egin dira, eta zenbait kasutan, handitu ere egin dira. Gaur egun urtero 1500 eta 1800 arteko ordutan kokatzen da lan denbora hori. Aldi berean, aurrerapen teknologikoari esker, lanaren produktibitatea hainbat aldiz handiagoa da.

Ildo hori jarraituz, langabeziari irtenbide emateko, lanaren banaketa aukera bat da. Nola egiten den hori beste kontu bat da, adibidez:

- Eguneroko ordutegiaren murrizketaren bidez. Europa osoan zehar, asteko 35 ordutako jardunaren errebindikazio zabaldu da azken urteotan. Frantzia lege baten bidez inposatu egin zen, baina enpresarien kontrako jarrera atzera bota zuen lorpen hori. Helburua lanpostu berriak sortzea da, langileen soldatak murriztu barik.
- Dagoen lanaren banaketa. Zenbait kasutan enpleguari eusteko estrategia izaten da; hau da, lanpostuen desagerpenaren mehatxuen aurrean sindikatuak prest egoten dira soldataren murrizketak onartzeko lanpostu guztiak mantentzen badira.
- Lan bizitzaren berrantolaketa. Proposamenik erradikalena da. Ibilbide laboralaren antolaketa malgu bat proposatzen du. Gaur egun, zenbait profesional liberalen esku dagoen aukera, noizbehinka urte sabatikoak hartzea, eskubide unibertsala bihurtzea litzateke. Lana guztion eskubidea bada, lanik ez egitea aukeratzen dutenek nolabaiteko ordaina jaso beharko lukete lanpostu eskasak beste batzuen esku uztearren.

### 2) Oinarrizko errenta unibertsala. Lana eta errentaren arteko loturaren apurketa.

Gure gizartean lana izaten da mekanismo nagusia errenta bat izateko, zuzenen ala zeharka (pentsioak, langabezi saria). Bazterketa sozialean daudenek edo, nolabaiteko ezintasuna dutenek izaten dute eskubidea diru laguntzaren bat jasotzeko.

Erabateko enplegua ziurtatzeko gaitasuna ez duen gizarte baten barruan langabetu kronikoak bazterketa sozialean erortzen dira. Gurpil zoro horrekin amaitzeko bide bakarra, lana eta errentaren arteko lotura etetea da bide bakarra. Hain zuzen ere, hori da oinarrizko errenta unibertsalaren defendatzaileek aldarrikatzen dutena. Benetako hiritartasuna, erabateko integrazioa, gutxieneko errenta izatetik etorriko litzateke, beraz bermatu egin behar da hori eskubide unibertsala bihurtzea.

Nazioarte mailan, aspaldidanik eratu da errenta unibertsalaren aldeko mugimendua. Suitzan, ekimen horrek lortu du erreferendum bat egitea gai honen inguruan. Datorren urtean ospatuko da eta ateratzen ez bada ere eztabaida zabala piztuko du.

Proposamen honek zerga sistema osoaren erreforma eskatuko luke. Estatuak gaur egun egiten dituen transferentzia guztien birmoldatzea egin beharko litzateke. Horrela ekonomikoki bideragarria izan daiteke. Azken finean, gaur egun zerga sistemak duen eginbehar banatzailearen beste antolaketa bat baino ez da.

### 3) Zerbitzu eta lanpostu berriak: lanaren desmerkantilizazioa.

Gizarte tradizioaletan jarduera asko lana izan arren ez dira lan merkantilizatuaren zirkuituan sartzen. Auzokoei laguntzea, ezinduei arreta ematea, aisialdiko ekintza ugari, umeak jagotea, .

Gizarte industrialetan, aldiz, edozein jarduera bilakatzen da lan merkantilerako aukera. Horregatik, gaur egun berriro proposatzen da lan merkantilizatua eta lan boluntarioaren oreka berri bat. Hau da, harreman sozialen antolaketa berri baten barruan zaintza lan ugari jarduera kolektibo boluntarioak izan beharko lirateke, lotura sozialak sendotuz. Helburua ez da lanpostu berriak sortzea, baizik eta harreman sozial berri batzuk eratzea, gure gizartearen anonimotasunetik alde eginez. Hurbiltasun zerbitzu hauek enplegu eta lan boluntarioaren arteko konbinazio berri bat sortuko luke.